

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI HITZALDIA

Haimar Zubeldia, Azken Kilometroan

Datorren azteazkenean, ekainaren 5ean, 19:30etan Azken Kilometroa dendan, Haimar Zubeldia txirindulari ohiak Titan Desert lasterketan bizitako abenturak kontatuko ditu hitzaldian. Usurbildarrak txirindularitza profesionala utzi zuen, baina ez kirola. Gainera J.M Tolinek bere *Emoción* liburua aurkeztuko du. ■

■ HERNANI OSIÑAGAKO FESTAK

Beroari aurre egiteko erremediorik onena dira Urumeako urak, festa eta sagardoa

Elorrabiko zubiaren inaugurazioarekin hasi dira aurtengo Osiñagako festa bereziak. Auzotar eta herritar ugari bildu da eta jaiak gaur ez du etenik pelota, bertsolari, trikitilari eta desafioarekin.

OSIÑAGAKO festak giro ezin hobean hasi dituzte. Eguzkiak gogor jotzen zuen, baina betaurrekoekin eta manga motzean jende asko hurbildu zen Elorrabira; alde batetik zubiaren inaugurazioa ikustera eta bestetik festen hasieraz gozatzera. Festaz blai kalejira, bertsolariak, arrauna, zinta mozketa, poemak, trikitilari entzutetsuak... handia izan zen Elorrabiko zubiaren inaugurazioa. Merezitakoa.

Arratsaldean festak ez zuen etenik izan. Tragoen beharra bazegoen 30 graduai aurre egiteko. Honela, sagardo dastaketak inoiz baino arrakasta gehiago izan zuen. Herri kirolariak majo sufritu zuten. Eskerrak sagardo dastaketa ondoren zen eta ederki errekupe-ratzeko parada izan zuten aritutako neska mutilek. Musika ere ez zen falta izan Laiotzekin.

Gaur pelota, bertsolariak eta zaldi desafioa

Gaurko eguna, berriz, Arriatsu eskolako frontoian hasiko dute auzotarrek. Goizeko 11:00-etatik aurrera, gazteen arteko pelota partidua izango dira aurrena, eta maila haundiko lau pelotari nesken arteko lehia izango da gero.

Aitor Mendiluzek eta Agin Laburuk jarriko dute saltsa auzoan, ondoren egingo duten bazkari herrikoia girotzen joateko. Arratsaldean, zaldi dema egingo dute. Desafioa bukatzen denean, bigarren saio bat ere eskainiko dute bertsolariak. Eta dantzari agurtuko dituzte aurtengo jaiak, Osiñagan. ■



Elorrabiko sagardotegiak omendu zituzten zubiaren inaugurazioan.

GAUR, igandea

- 11:00**, Gazteen pelota partidua.
- 12:00**, Master Cup txapelketako bikoteen arteko partidua: Maria Granado-Alaitz Badiola/ Araitx Eizagire-Narrea Elizalde.
- 13:30ak arte**, Tolosa ahizpak, trikitixa jotzen.
- 13:30**, Bertsolariak: Aitor Mendiluzek eta Agin Laburu.
- 14:00**, Bazkari herrikoia.
- 18:00**, Desafioa: Asteasuko Andoni Mendizabalen zaldiaren eta Zumaiako Juan Etxexoren zaldiaren artean.
- Ondoren**, Aitor Mendiluzek eta Agin Labururen bertso saioa.
- Segidan**, Dantzaldia, Joxe Angel El Navarrokekin.



Herri kiroltako ikuskizuna arratsaldean izan zen.

■ HERNANI LITERATURA

'Nik sinisten dizut', Biterin

Samara Velte idazlearen *Nik sinisten dizut* liburuaren aurkezpena izango da ostegunean, ekainaren 6an, 18:30etan, Biterin. Bertan, San Fermine-tako kasua eta bortxakeriaren kultura aztertzen ditu Velte idazleak. ■

■ ASTIGARRAGA JAIK

Bilera bihar, Santio Jaiak antolatzeko

Pasa den ostegunean bezala, bihar, astelehenarekin ere, bilera deitu du Santio Jaietako Batzordeak. Udalatzeko pleno aretoan egingo da bilera, arratsaldeko 19:00etan hasita eta jendea animatzera egiiten da dei. ■

■ EREÑOTZU JAIK

Mus txapelketa ostiralean

San Antonioetako Mus Txapelketa ostiralean, ekainaren 7an, antolatu da Ur Mia elkarteak, 22:30etan hasita. Aurtengoa, 34garren edizioa izango da. Bestetik, igandea, ekainaren 9a da, herri afarirako txartelak erosteko azken eguna. Irrintzin erosi behar dira eta afaria ekainaren 14an antolatu da, 21:00etan. ■



ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8
943 33 15 06

XXXV. MUS TXAPELKETA

EKAINAK astelehena 3
JOSEBA - CARLOS / MANOLO - JESUS
ANDER - ARKAITZ / PETTO - MAÑEL
MAXI - MIKEL / JOXE - KIJE
ANTONIO - PINA / ROBER - AITZOL

EKAINAK asteartea 4
JAVI - TXOMIN / JOXE RAMON - PACO
TXEMA - PLATANITO / YANTO - AITOR
IÑAKI - MARTIN / JONAN - ZURU
KOLDO - PABLO / MATHIUS - ANER

HAMASEIRENAK

EKAINAK asteazkena 5
JUAN - TARSÍ / NIKO - PASTE
TUTU - JULIAN / TXEMA - MAGGI
MIKEL - POTTUNE / XARPA - MITXELENA
PELLO - JAVIER / JOXE LUIS - JON

EKAINAK osteguna 6
BIXENTE - JOXE / BITTOR - POPIN
AXIER - KOLDO / CARLOS - JAVI
JONKAR - JOSEBA / GARI - TXILIBI
AGURTZANE - ANDER / MARISA - JUANI

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
943 55 09 10

musika eskola
DOINU-ZALE

KARABEL ALZOLA, 4 - beheko ezberria

AURREMATRIKULAZIOA ZABALIK

ekainaren 14ra arte
943 33 12 33 - 637 85 79 62

IMANOL KAMIO
musika eskola

DOINU ZALE



GAUR Eguzkitsu jarraituko du eguraldiak, baina tenperatura jeitsi egingo da kostaldean; goizean han haizea ipar-mendebaldera aldatu eta tenperaturaren igoera lehenago eten egingo da. **Min.16° / Max.26°**



BIHAR Behera egingo du tenperaturak. Tenperatura maximoak atseginak izango dira, baina ez du beron egingo. Eguraldia ere nahasiagoa izango da. **Min.15° / Max.21°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Aguado ASTIGARRAGA** Nagusia, 21 **943 550327** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI AMHER

Amherrek bizilagun berriei, ongietorria ekainaren 10ean

Latsunbe 42ko lokalean emango diote hasiera ekitaldiari, 16:00etan, eta herriko txoko, elkarte eta zerbitzuetako lekuak ezagutuko dituzte.

URTERO egiten duten moduan Amher elkarteak ongietorria eman nahi die Hernanira iritsi diren bizilagun berriei.

Aurten ekainaren 10ean, astelehenean izango da ongietorri hori. Amherren lokalean, Latsunbe 42, emango diote hasiera ekimenari, herriaz eta elkarteaz hitz egiten eta gero ibilbide bat egingo dute herrian zehar zerbitzu desberdinak azaltzen eta denon artean ezagutzen.

Amherretik bizilagun be-

Amherrek herriko eragile, elkarte, bizilagun berri eta herritarrei hurbiltzeko gonbitea egin die.

rriei eta nahi duten herritarrei, baita elkarte eta eragile desberdinei ere, gonbitea luzatzen diete ongi etorri honetara bertaratzeko. Zita 16:00etan izango da.

Bertan elkarte, mugimendu, zerbitzu edota eragile desberdinek berai buruzko informazioa banatu dezakete interesaz gero. Horretarako, ekainak 7 ostirala baino lehen utzi dezakete informazioa Amherren lokalean bertan.

Ahmerretik gogoratzen dute. «Ongietorria herriarena izatea baino gauza hobea ez dago. Hortaz, ezagunen artean zabaltzen bada bizilagun berriei ongietorria eskertzekoa izango da».

URUMEA EUSKARA

Euskaraldiaren bigarren edizioa prestatzeko lehen mintegia egin da

120 lagun bildu dira Donostian, 2020ko udazkenean egingo den Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkezteko lehenengo mintegian.

120 lagun bildu ziren atzo goizean EHUko Carlos Santamaria zentroan, Donostian, Euskaraldiaren bigarren edizioa aurkezteko lehen mintegian. 2020ko udazkenean egingo den Euskaraldia ariketa sozialak izango dituen ezaugarriak eta antolaketa zehetasunak aurkeztu dituzte ekimena koordinatzen ari diren era-

kundeetako kideek.

Mintegian parte hartu dute Euskaraldiaren lehenengo edizioan herriz herri antolatutako batzordeetako kideek eta ekimenaren sustatzaile izan ziren erakunde, gizarte eragile eta enpresetako ordezkariak. Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburua eta Elena La-

ka Euskaltzaleen Topaguneko presidentek zabaldu dute mintegia.

Euskaraldiaren lehen edizioan Euskal Herriko milaka lagunek parte hartu zuten aho-bizi eta belarriprest roletan, hizkuntza ohiturak aldatu eta beraien inguruko harremanetan euskararen erabilera handitzeko helburuarekin.

HERNANI MUSIKA



Oskar Ovejero bilbotarra ostiraleko gradu kontzertuan.

Ovejeroren lekukoa gaur, Leokadistik

Gradu amaierako txistu kontzertua eskaini zuen Oskar Ovejero ostiralean udaletxean. Bakarlari gisa aritzeaz aparte, laguntzaileak ere izan zituen, Musikeneko ikasleak, haietako batzuk. Akordeoiekin ere lagundu zioten. Gaur ere ez dira txistu doinuak faltako Hernanin. Leokadistik Txistu Taldeko kideek udaberriko kontzertua eskainiko dute. Udaletxeko arkupeetan, eguerdiko 12:30etan hasita.

ASTIGARRAGA HERRI ESKOLA



Umeek ezin hobeto pasa zuten apar festan.

Apar festa umeen gozamenerako

Herri Eskolako festan apar festak izugarriko arrakasta izan zuen.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† ANTONIO FERNANDEZ ELICEGUI

"GORRI"

Atzo hil zen, 82 urte zituela

- Goian Bego -

Gurasoak: Juan (+) eta Nazaria (+) eta Bernardino (+); anai-arrebak: Tomasa (+) eta Batis (+), Maritxu eta Paco (+), Ignacio (+), Juanito eta Estefania, Maria Jesus (+) eta Pedro Mari, Miguel eta Loli; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak. Gure esker on guztia Hernaniko Santa Maria Magdalena egoitzako langileei.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, ASTELEHENA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2019ko ekainaren 2an

OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da bihar eguerdiko 12:15ak arte.

JOSETXO AIERZA LERTXUNDI

(Josetxo)

- Goian Bego -

Ezustean joan zara.

Beti izango zara, Josetxo

lagun paregabea.

MARTINDEGIKO AUZO ELKARTEA

Hernanin, 2019ko ekainaren 2an



JOSETXO AIERZA LERTXUNDI

(Josetxo)

- Goian Bego -

Urak dakarrena urak daroa

baina zuk emandakoa

gurekin gelditzen da.

ORAINGO GAZTEAK ELKARTEA

Hernanin, 2019ko ekainaren 2an



IRAGARKI MERKEAK

Emakumea, 37 urtekoa, interna moduan eskaintzen da Hernani edo ingururako. Erreferentziak. Deitu: 615 759 884 - 631 208604

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia Bidali: bzhermani@gmail.com

Hernaniko Etxeberri auzoan uztailea arte martxan dagoen eta harategia duen janari denda bat alokatzen edo saltzen da jubilazioa dela eta. Interesatuak Deitu: 689 290 923

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. Deitu: 943 27 78 51

Errioxako Alesanko herrian apartamentu bat salgai: 2 logela, sukalde-egongela eta komuna, dena kanpoaldean eta altzariekin. Deitu: 676 402 750

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)